

(Aplikatu ahal izateko baldintzatzat argitaratu beharra duten egintzak)

KONTSEILUAREN 1/2003 (CE) ERREGELAMENDUA
2002ko abenduaren 16a
Itunaren 81 eta 82. artikuluetan ezarritako lehia-arauak aplikatzen dituen
(EEErako baliozko testua)

EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Ikusita Europar Batasuna Eratzeko Ituna eta bereziki bere 83. artikulua¹,

Ikusita Batzordearen proposamena²,

Ikusita Europar Parlamentuaren ebazpena³,

Ikusita Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen ebazpena,

Hau hartu du kontuan:

- (1) Merkatu bateratuan lehia faltsutzen ez dela bermatzen duen erregimen bat ezartzearen, bidezkoa da Ituneko⁴ 81 eta 82. artikulua (*) leku guztietan berdin eta eraginkortasunez aplikatzen direla zaintzea. Kontseiluaren 17. Erregelamenduak, 1962ko otsailaren 6koak, Erkidegoko lehiari buruzko politika bat sortzeko modua eman zuen, Erkidegoko lehiaren kultura bat heda zezan. Egun, ordea, hartutako eskarmentua ikusita, komeni da Erregelamendu hori ordezkatu eta legedi egokia jartzea, merkatu integratuaren eta Erkidegoaren etorkizuneko zabalpenaren erronkei aurre egitearren.
- (2) Bereziki, komeni da kontuan hartzea lehia murrizten duten akordioak debekatzeko salbuespenaren aplikazio-erregimena, Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoan agertutakoa. Horri buruz, Itunaren 83. artikuluko 2. paragrafoko b) letran xedatutakoaren arabera, bidezkoa da kontuan hartzea, alde batetik, gainbegirapen eraginkorra segurtatzen dela eta, bestetik, administrazio-kontrola errazten dela.
- (3) 17. Erregelamenduak ezarritako erregimen zentralizatua ez da jada bi helburu horien arteko oreka bermatzeko gai. Alde batetik, galgatzten du organo juridikzionalak eta estatu kideetako lehiari buruzko agintariak Erkidegoko lehia-arauak aplikatu ahal izatea eta, gainera, haren jakinarazpen-sistemak eragotzi egiten dio Batzordeari arau-hauste larrienak erreprimitzeko baliabideetan indar osoa jartzea. Beste alde batetik, enpresei kostu nabarmenak eragiten dizkie.

¹ AO C 365 E, 2000.12.19, 284. or.

² AO C 72 E, 2002.3.21, 305. or.

³ AO C 155, 2001.5.29, 73. or.

⁴ AO 13, 1962.2.21, 204/62 or.: Erregelamendu horren azken aldaketa 1216/1999 CE Erregelamendua da (AO L 148, 1999.6.15, 5. or.)

* 17. Erregelamenduaren titulua zuzendu egin dute, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren artikuluetako zenbakiak kontuan hartzeko, Amsterdameko Itunaren 12. artikulua arabera: jatorriz, Itunaren 85 eta 86. artikuluei egiten zien erreferentzia.

- (4) Beraz, komeni da erregimen hori zuzenean aplikagarria den lege-salbuespeneko sistema batez ordezkatzea: bertan, lehiari buruzko agintaritzak eta estatu kideetako organo jurisdikzionalak eskumena izango dute, Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoa eta 82. artikulua ez ezik (Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, dagoeneko zuzenean aplika daitezke), Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzeko.
- (5) Erkidegoko arauak benetan aplikatzen direla bermatzeko eta oinarrizko defentsa-eskubideetarako, Erregelamendu honek froga-kargaren egozpena arautu behar du, Itunaren 81 eta 82. artikuluen aplikazioan kokatuta. Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoa edo 82. artikulua urratu direla alegatzen duen agintaritzari edo alderdiari dagokio gertatu dela zuzenbideari lotuz frogatzea. Arau-hauste bat egiaztatuta, salbuespen baten babesari lotzen zaion enpresa edo enpresa-elkarteari dagokio zuzenbideari lotuz frogatzea defentsa horri lotzeko behar baldintzak betetzen dituela. Erregelamendu honek ez die eragiten froga baloratzeko estatuan estatuko araei, ezta lehiari buruzko agintaritzek eta estatuan estatuko jurisdikzioek men egin behar dieten esijentziei ere, auzi bateko gertaerak zehazteko orduan, betiere arau eta esijentzia horiek Erkidegoko zuzenbidearen printzipio orokorrekin bateragarriak badira.
- (6) Erkidegoko lehia-arauak eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzearren, komeni da lehiari buruzko estatuan estatuko agintariek gehiago parte har dezaten bultzatzea. Horretarako, agintari horiek Erkidegoko zuzenbidea aplikatzeko eskumena eduki behar dute.
- (7) estatuan estatuko organo jurisdikzionalak ezinbesteko zeregina dute lehiaren Erkidegoko arauak aplikatzeko orduan. Erkidegoko Zuzenbidetik sortutako eskubide subjektiboak babesten dituzte, partikularren arteko auziei buruzko epaitzak emanez, adibidez, arau-hausteen ondorioz kaltetutakoei kalte-galerak ordainduz. Estatuan estatuko organo jurisdikzionalen zeregina, horri dagokionez, estatu kideetako lehiari buruzko agintarienarekin bateragarria da. Komeni da, beraz, eurek Itunaren 81 eta 82. artikulua osoki aplikatzeko ahalmena hartzea.
- (8) Erkidegoko lehia-arauak benetan aplikatzen direla eta Erregelamendu honetan bildutako lankidetzaren mekanismoek egoki funtzionatzen dutela bermatzearren, beharrezkoa da lehiari buruzko estatu kideetako agintariei eta auzitegiei, estatu kideen arteko merkataritzari eragin diezaioketen akordio eta praktikei lehiaren estatuan estatuko legedia aplikatzen dietenean, Itunaren 81 eta 82. artikulua ere aplika ditzaten inposatzea. Beharrezkoa da, halaber, estatuetako eta Erkidegoko lehiari buruzko legedien arteko erlazioak mugatzea, Itunaren 83. artikuluko 2. paragrafoko e) letraren arabera, akordioetarako, enpresa-elkarteen erabakietarako eta barne-merkatuan kontzertatutako praktiketarako baldintza objektibo pareagarriak ezartzeko. Horretarako, beharrezkoa da xedatzea Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoak aipatutako estatuko legediak akordio, erabaki eta praktika kontzertatuei aplikatzeak ezin dituela horiek debekatu, non eta lehiaren Erkidegoko Zuzenbideak ere debekatzen ez dituen. Akordio, erabaki eta praktika kontzertatuen nozioak lehiaren Erkidegoko zuzenbidearen kontzeptu autonomoak dira,

eta, Erkidegoko auzitegien arabera, enpresen merkatuko jokabidea koordinatzeko erei egiten diete erreferentzia. Erregelamendu hau ez da oztopo izan behar estatu kideek euren lurraldean lehiari buruzko legedi zorrotzagoak erabaki eta aplika ditzaten, enpresen alde bakarreko jokabideak debekatzeko edo zigorrak ezartzeko. Estatuan estatuko legedi zorrotzago horiek ekonomikoki mendekoak diren enpresei buruz debekua eta zigorrak ezartzen dituzten xedapenak egin ditzakete. Erregelamendu hau ere ez zaie aplikatuko pertsona fisikoentzako zigor penalak inposatzen dituzten estatuko legediei, salbu eta zigor horiek lehia-arauak burutzeko bitartekoa diren neurrian.

- (9) Itunaren 81 eta 82. artikuluen xedea da merkatuko lehia babestea. Erregelamendu honek, Itunaren xedapenak aplikatzeko onartutakoa denez, ez du eragotziko estatu kideek euren lurraldean beste interes legitimo batzuk babestearren estatuko legedia aplikatu ahal izatea, betiere legedi hori Erkidegoko zuzenbidearen printzipio orokorrekin eta gainerako xedapenekin bateragarria bada. Estatuan estatuko legedi horrek batez ere merkatuko lehiaz bestelako helburu bat bilatzen duen neurrian, lehiaren agintariak eta organo jurisdikzionalak legedi hori euren lurraldean aplikatu ahal izango dute. Beraz, Erregelamendu honen arabera, estatu kideek bidegabeko lehia-egintzak, alde bakarrekoak zein kontratu bidezkoak, debekatu edo zigortzen dituen estatuko legedi bat aplikatu ahal izango dute. Legedi horrek helburu zehatz bat du, egintza horiek merkatuko lehian izan ditzaketen ustezko edo benetako ondorioak gorabehera. Hala gertatzen da bereziki euren merkataritza-kideei baldintza bidegabeak, neurrigabeak edo ordainik gabeak ezarri edo atera nahi dizkieten enpresei debeku hori ezartzen dien legediarekin.
- (10) 19/65 (CEE) ⁽¹⁾, 2821/71 (CEE) ⁽²⁾, 3976/87 (CEE) ⁽³⁾, 1534/91 (CEE) ⁽⁴⁾ eta 479/92 CEE ⁽⁵⁾ Erregelamenduek, erregelamenduaren bidez, Batzordeak

¹ Kontseiluaren 19/65/CEE Erregelamendua, 1965ko martxoaren 2koa, akordio eta praktika kontzertatuko kategoria jakin batzuei Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzen diena (Erregelamenduko titulua zuzendu egin dute, EE Eratzeko Itunaren artikuluetako zenbaki berriak kontuan hartzeko, Amsterdameko Itunaren 12. artikulua arabera: jatorriz, Itunaren 85. artikuluko 3. paragrafoari egiten zion erreferentzia). Ikus AO 36, 1965.3.6, 533/65 or.; Erregelamendu horren azken aldaketa 1215/1999 CE Erregelamendua da (AO L 148, 1999.6.15, 1. or.).

² Kontseiluaren 71/2821 CEE Erregelamendua, 1971ko abenduaren 20koa, akordio, erabaki eta praktika kontzertatuko kategoria jakin batzuei 81. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzen diena (Erregelamenduko titulua zuzendu egin dute, EE Eratzeko Itunaren artikuluetako zenbaki berriak kontuan hartzeko, Amsterdameko Itunaren 12. artikulua arabera: jatorriz, Itunaren 85. artikuluko 3. paragrafoari egiten zion erreferentzia). Ikus AO L 285, 1971.12.29, 46. or.; Erregelamendu horren azken aldaketa 1994ko Atxikitze Akta da.

³ Kontseiluaren 3976/87 CEE Erregelamendua, 1987ko abenduaren 14koa, aire-garraio sektoreko akordio eta praktika kontzertatuko kategoria jakin batzuei 81. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzen diena (Erregelamenduko titulua zuzendu egin dute, EE Eratzeko Itunaren artikuluetako zenbaki berriak kontuan hartzeko, Amsterdameko Itunaren 12. artikulua arabera: jatorriz, Itunaren 85. artikuluko 3. paragrafoari egiten zion erreferentzia). Ikus AO L 374, 1987.12.31, 9. or.; Erregelamendu horren azken aldaketa 1994ko Atxikitze Akta da.

⁴ Kontseiluaren 1534/91 CEE Erregelamendua, 1991ko maiatzaren 31koa, aseguru-sektoreko akordio, erabaki eta praktika kontzertatuko kategoria jakin batzuei 81. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzen diena (Erregelamenduko titulua zuzendu egin dute, EE Eratzeko Itunaren artikuluetako zenbaki berriak kontuan hartzeko, Amsterdameko Itunaren 12. artikulua arabera: jatorriz, Itunaren 85. artikuluko 3. paragrafoari egiten zion erreferentzia). Ikus AO L 143, 1991.6.7, 1. or.

⁵ Kontseiluaren 479/92 CEE Erregelamendua, 1992ko otsailaren 25ekoa, lineako itsas garraioko konpainien (partzuergoen) arteko akordio, erabaki eta praktika kontzertatuko kategoria jakin batzuei 81. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzen diena (Erregelamenduko titulua zuzendu egin dute, EE Eratzeko

Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoa akordio, enpresa-elkarteen erabaki eta praktika kontzertatuen kategoria jakin batzuei aplika diezaien gaitzen dute. Erregelamendu horien testuinguruan, Batzordeak "Kategoriaka salbuesteko erregelamenduak" direlakoak onartu eta onartzen jarraituko du; horien bidez, akordio, enpresa-elkarteen erabaki eta praktika kontzertatuen kategoria jakin batzuei Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoa ezin zaiela aplikatu deklaritzen du. Hala eta guztiz ere, Erregelamendu horiek aplikatzen zaizkion akordio, erabaki eta praktika kontzertatuek Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoarekin ondorio bateraezinak eragiten dituztenean, Batzordeak eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariek ahalmena izan behar dute kasu zehatzetan Kategoriaka salbuesteko erregelamenduaren onura kentzeko.

- (11) Itunaren xedapenen aplikazioa zaintzeko, komeni da Batzordeak enpresei edo enpresa-elkarteei Itunaren 81 eta 82. artikuluko urratzeari utz diezaiotela behartzeko erabakiak helarazi ahal izatea. Interes legitimoa baldin badago, Batzordeak, halaber, erabakiak hartu ahal izango ditu iraganean arau-haustea egin izana egiaztatzeko, isunik ez ezarri arren. Komeni da, bestalde, Erregelamenduan berariaz finkatzea Batzordeak badaezpadako neurriak ezartzeko erabaki-ahalmena duela, Justizia Auzitegiak hala aitortuta.
- (12) Erregelamendu honek Batzordeari berariaz eskumena eman behar dio arau-hauste bati eraginkortasunez amaiera emateko edozein erremedio ezar dezan (dela jokabidekoa, dela estrukturala), betiere proportzionaltasun-printzipioa gogoan izanik. Erremedio estrukturalak era berean eraginkorra den beste jokabideko erremedio baten ezean soilik ezarri ahal izango dira, edo jokabideko edozein erremedio enpresarentzat erremedio estrukturala baino larriagoa suertatzen bada. Arau-haustearen aurreko enpresaren egituraren aldaketak ezartzea proportzionaltasun-printzipioan kokatzen da baldin eta enpresa-egiturak berak arau-hauste iraunkor edo errepikakorreko arrisku nabarmena sortzen badu soilik.
- (13) Akordio edo praktika bat debekatzera hel daitekeen prozedura batean, enpresek Batzordeari bere kezkek gainditzeko konpromisoak proposatzen dizkiotenean, komeni da Batzordeak, erabaki bidez, konpromiso horiek eraginpeko enpresei nahitaezko bihurtaraztea. Konpromiso horiei buruzko erabakiek egiaztatuko dute ez dagoela harrezkero arrazoirik Batzordeak esku har dezan, ebatzi behar izan gabe arau-haustea gertatu ote den edo, artean, lehengoan jarraitzen ote duen. Konpromiso horiei buruzko erabakiak lehiari buruzko agintariek eta organo jurisdikzionalak zein estatukoek auzi hori argitzeko eta kasuari buruz erabakitzeko duten botereari lotuta daude. Ez da bidezkoa izango konpromisoei buruzko erabakiak hartzea Batzordeak isuna jarri behar duenean.
- (14) Erkidegoaren interes publikoak hala eskatzen duen salbuespen-kasuetan, erabakigarria izan daiteke Batzordeak deklarazio-moduko erabaki bat hartzea eta, bertan, adieraztea 81 edo 82. artikuluan zehaztutako debekuak ez duela aplikabiderik aurkitzen, eta hori, Zuzenbide aplikagarria argitzearen eta Erkidego osoan era koherentean aplikatzen

Itunaren artikuluetako zenbaki berriak kontuan hartzeko, Amsterdameko Itunaren 12. artikulua araberaz: jatorriz, Itunaren 85. artikuluko 3. paragrafoari egiten zion erreferentzia). Ikus AO L 55, 1992.2.29, 3. or.: Erregelamendu horren azken aldaketa 1994ko Atxikitze Akta da.

dela bermatzearren, bereziki jurisprudenzian edo administrazio-praktikan aurrekaririk ez duten akordio- edo praktika-mota berriak direnean.

- (15) Komeni da Batzordeak eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariak Erkidegoko lehia-arauak lankidetzan estuan aplikatzen dituzten agintari publikoen sare bat elkarrekin eratzea. Horretarako, informazio eta kontsultako mekanismoak sortu behar dira. Batzordeak, estatu kideen lankidetzan estuan, sareko lankidetzaren xehetasun gehigarriak ezarri eta berrikusiko ditu.
- (16) estatuan estatuko araudiak bestela xedatu arren, sareko kideek informazio-elkartrukea egin ahal izango dute, isilpekoa izanda ere, eta frogarbitarteko moduan erabili. Informazio hori Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko erabili ahal izango da, baita lehiaren estatuan estatuko legedia aldi berean aplikatzeko ere, betiere azken horren aplikazioa auzi berari buruzkoa bada eta emaitza desberdin bat eragiten ez badu. Elkartrukatuko informazioa agintaritzan hartzaileak enpresak zigortzeko baliatzen duenean, horretarako, muga bat baizik ez litzateke jarri behar: informazioa bildu den helburuetarako soilik erabiltzea; izan ere, enpresei ezarritako zigorrak mota berekoak dira sistema guztietan. Era askotako sistemetan enpresek dauzkaten defentsa-eskubideak behar bezain baliokidetzat jo daitezke. Pertsona fisikoek har ditzaketen zigorrak, baina, guztiz desberdinak izan daitezke sistemaren arabera. Kasu horretan, komeni da bermatzea agintaritzan hartzailearen estatuko arauak emandako pertsona fisikoaren defentsa-eskubideen babes-maila bera errespetatzen duen informazioa soilik baliatzen dela.
- (17) Lehia-arauak era koherentean aplikatzen direla eta sarea al bait ondoen kudeatzen dela bermatzearren, ezinbestekoa da arau bat edukitzea Batzordeak prozedura bat hasterakoan estatu kideetako agintariak eskumena automatikoki gal dezaten. Lehiari buruzko estatu kide bateko agintari bat dagoeneko auzi baten instrukzioan dabilenean eta Batzordeak prozedura hasteko asmoa duenean, lehenbailehen ekiten saiatu behar du. Prozedura hasi baino lehen, Batzordeak dagokion estatuko agintariari kontsultatu behar dio.
- (18) Sare barnean, auziak al bait hobekien esleitzen direla bermatzeko, komeni da xedapen orokor bat ezartzea, beste agintari batzuk gertaera berdinen gaineko espediente baten instrukzioan ibiltzearen edo horiei buruz epaitza bat eman izanaren ondorioz, edozein agintaririk lehiari buruzko jarduketak bertan behera uztea edo artxibatzea erabakitzeko modua izan dezan, helburua baita auzi bakoitza agintari bakar batek aztertzea. Xedapen hori, ordea, ez da eragozpen izan behar Batzordeak, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak hala aitortuta, erkidegoarentzako interes-faltaz salaketa bat bazter dezan, lehiari buruzko beste agintari batek ere auzia bere eskuetan hartzeko asmorik adierazi ez duenean ere.
- (19) Praktika murriztaile eta nagusitza posizioei buruzko Aholku Lantaldearen funtzionamendua, 17. Erregelamenduak ezarri bezala, oso ondo joan da. Lantalde hori ondo txertatuko da aplikazio deszentralizatuko sistema berrian. Beraz, bidezkoa da 17. Erregelamenduak ezarritako arauak oinarritzat hartzea, aldi berean, horrek lanen antolakuntzaren eraginkortasuna hobeto dezan. Horretarako, egokia suertatzen da ebazpenek prozedura idatziz igortzeko modua izatea. Gainera, Aholku Lantaldeak lehiari buruzko estatu kideetako agintariak tramitatzen diharduten auzien

gaineko eztabaida-foro izateko balio behar du; hartara, Erkidegoko lehia-arauak era koherentean aplika daitezzen laguntzen du.

- (20) Komeni da Aholku Lantaldea lehiari buruzko estatu kideetako agintariak osatzea. Estatu kideek aukera izan behar dute gai orokorrei erreparatuko dieten bileretarako ordezkari gehigarri bat izendatzeko. Horrek guztiak ez du eragotziko, ordea, Lantaldeko kideek estatu kideetako beste aditu batzuk lagun izatea.
- (21) Lehia-arauak era koherentean aplikatzeko, halaber, estatu kideetako organo juridikzionalen eta Batzordearen arteko lankidetzaren mekanismoak ezarri behar dira. Hori Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzen dituzten estatu kideetako organo juridikzional guztientzat da baliozkoa, arau horiek partikularren arteko auziei aplikatzerakoan zein lehiari buruzko agintari edo apelazioko auzitegi moduan jokatzeko. Bereziki komeni da estatuan estatuko organo juridikzionalak Batzordeari lehiaren Erkidegoko zuzenbidearen aplikazioko alderdiei buruzko informazioak edo ebazpenak eskatzeko aukera izatea. Bestalde, Batzordeari eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariari, Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko eskatu zaien organo juridikzionalen aurrean, idatzizko zein ahozko oharpenak aurkezteko ahalmena eman behar zaie. Oharpen horiek estatuan estatuko auzibide-arau eta -praktiken esparruan (alderdien eskubideen babesei buruzkoak barne) aurkeztu behar dira. Horretarako, bidezkoa da neurriak hartzea Batzordeak eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariak, estatuetakoa prozedura judizialei buruzko beharrezko informazioa eskuratzeko modua izateko.
- (22) Eskumen paraleloko sistema honetan, erabaki kontraesankorrak saihestu behar dira, segurtasun juridikoko eta Erkidegoaren eskumeneko arauen aplikazio uniformeko printzipioak bermatzearren. Beraz, Batzordearen erabakien eta auzitegien prozeduren ondorioak argitu beharrekoak dira, baita estatu kideetako lehiari buruzko agintarienak ere, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera. Konpromisoak ezartzen dituzten Batzordearen erabakiek ez diote eragiten organo juridikzionalak eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariak Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko ahalmenari.
- (23) Batzordeak Erkidegoaren lurralde osoan eduki behar du ahalmena errekeritzeko Itunaren 81. artikulua debekatutako edozein akordio, erabaki edo praktika kontzertatu edo Itunaren 82. artikulua debekatutako nagusitza-posizioa gehiegikeriaz aprobeztatzea antzemateko beharrezko informazioa eman diezaioten. Batzordearen errekerimendua betetzerakoan, enpresak ezingo dira behartu arau-hauste bat burutu dutela onartzera; bai, ordea, edozein kasutan, gertaerei buruzko galderei erantzutera eta dokumentuak ematera, arau-hausteak egon direla egiaztatuz enpresa horien edo beste batzuen kontra informazio hori baliatzeko aukera izanda ere.
- (24) Batzordeak, halaber, ahalmena eduki behar du beharrezko ikuskapen guztiak egiteko Itunaren 81. artikulua debekatutako edozein akordio, erabaki edo praktika kontzertatu edo Itunaren 82. artikulua debekatutako nagusitza-posizioa gehiegikeriaz aprobeztatzea antzeman ditzan. Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak euren lankidetzaren aktiboa eman behar dute botere horiek baliatzean.

- (25) Gero eta zailagoa da lehia-arauak hausten direla antzematea, eta lehia eraginkortasunez babesteko, beharrezkoa da Batzordearen ikertzeko botereak osatzea. Batzordeak ahalmena eduki behar du, bereziki, informazio erabilgarria eduki dezaketen pertsona guztiak galdekatzeko eta euren adierazpenen berri gordetzeko. Ikuskapen batean, Batzordeak akreditatutako agenteek ahalmena eduki behar dute ikuskapenak iraun bitartean zigiluak jartzeko, normalean 72 ordu baino gehiago joko ez duena. Halaber, Batzordeak akreditatutako agenteek ahalmena eduki behar dute auziari eta ikuskapenaren xedeari lotutako era guztietako informazioak biltzeko.
- (26) Esperientziak agerian utzi duenez, kasu batzuetan, zuzendarien etxeetan izaera profesionaleko dokumentuak gordetzen dira; beraz, komeni da, ikuskapenen eraginkortasuna gordetzeko, agenteei eta horretarako Batzordeak akreditatutako gainontzeko pertsoneri izaera profesionaleko dokumentuak egon daitezkeen lokal guztietara sartzeko baimena ematea, pertsonen etxeetara barne. Ahalmen hori baliatzea, baina, estatuan estatuko epailearen baimenaren mende egon beharko litzateke.
- (27) Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia eragotzi gabe, erabilgarria izango da zehaztea estatuan estatuko agintari judizialen kontrolaren irismena zein den, euren estatuko legediarekin bat etorriz, enpresa batek gogor eginez gero, prebentzio-neurri moduan ere hari aurre egitearren indar publikoa baliatzeko, edo merkataritza-jardueretara ez bideratutako lokalak ikuskatzearen erabaki bat burutzea baimentzeko orduan. Jurisprudentziaren arabera, estatuko epaileak bere kontrola baliatzeko beharrezko informazio gehigarria eska diezaioke Batzordeari, eta ez badauka, baimena uka dezake. Halaber, jurisprudentziak berresten duenez, estatuan estatuko organo jurisdikzionalak eskumenak dituzte estatu barneko behartze-neurriak burutzen dituzten arauak egoki aplikatzen direla kontrolatzeko.
- (28) Lehiari buruzko estatu kideetako agintariei Itunaren 81 eta 82. artikulua eraginkortasunez aplikatzea erraztearren, egokia da ikuskapenetan zein beste ikerketa-neurrietan elkarri laguntzeko eurei ahalmena ematea.
- (29) Erregelamendu hau aplikatuz, Itunaren 81 eta 82. artikulua betetzea eta enpresei zein enpresa-elkarteei ezarritako obligazioak burutzea bermatzeko modua izan behar da, zigor-isunak eta behartze-isunak ezarriz. Horretarako, bidezkoa da prozeduraren arau-hausteetarako isun-zenbateko egokiak ezartzea.
- (30) Egindako arau-hausteengatik enpresa-elkarteei ezarritako isunak benetan kobratzen direla bermatzearen, beharrezkoa da Batzordeak, elkarte kaudimengabea izatekotan, elkarteko kideei isuna ordain dezaten exijitzeko baldintzak ezartzea. Hori egitean, Batzordeak elkarteko kide diren enpresen eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainen dimentsio erlatiboak hartu behar ditu kontuan. Isuna elkarte bateko kide batek edo askok ordaintzeak ez ditu eragozten elkarteko beste kide batzuei ordaintze-zenbatekoa kobrarazten dieten estatuan estatuko zuzenbideko arauak.

- (31) Zigor-isunak eta behartze-isunen ezarpenaren preskripzioari buruzko arauak 2988/74 (CEE) Erregelamenduan daude bilduta ⁽¹⁾, garraio-gaietan aplikatzeko zigorak ere arautzen dituena. Eskumen paraleloko sistema honetan, beharrezkoa da preskripzioa eten dezaketen egintzen katalogora lehiari buruzko estatu kide bateko agintari batek era autonomoan burututako eginbideak gehitzea. Lege-esparrua argitzearren, egokia da, beraz, 2988/74 CEE Erregelamendua aldatzea, Erregelamendu honetan araututako alderdiak haren aplikazio-esparrutik baztertzearren eta, Erregelamendu honetan, preskripzioari buruzko xedapenak sartzearren.
- (32) Komeni da kontsagratzea Batzordeak enpresa interesatuak entzun ditzan duten eskubidea eta erabaki batek eragindako hirugarren enpresa interesatuek aurrez euren oharpenak aurkez ditzaten duten aukera ere, baita hartutako erabakiei publizitate zabala ematea ere. Ezinbestekoa da merkataritza-sekretuak babestea eta, aldi berean, eraginpeko enpresen defentsa-eskubideak bermatzea, bereziki, espedientea eskuratzeko eskubidea. Gainera, komeni da sarean elkartrukaturako informazioak isilpean babestea.
- (33) Erregelamendu hau aplikatuz, Batzordeak hartutako erabaki guztiak, Itunak definitutako baldintzetan, Justizia Auzitegiaren kontrolaren pean daudela ikusita, Itunaren 229. artikulua aplikatuz, komeni da, Batzordearen zigor-isunak edo behartze-isunak ezartzeko erabakien gaietan, Justizia Auzitegiari eskumen jurisdikzional osoa ematea.
- (34) 17. Erregelamenduan adierazi bezala, Itunaren 81 eta 82. artikuluetan adierazitako printzipioek protagonismo berezia ematen diete Erkidegoko organoei. Protagonismo horri eutsi egin behar zaio eta, aldi berean, Erkidegoko lehia-arauak aplikatzeko orduan, estatu kideen partaidetza handiagoa sustatu. Itunaren 5. artikuluan kontsagratutako subsidiarioratasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera, Erregelamendu honek ez du beharrezkoa dena gainditzen Erkidegoko lehia-arauak eraginkortasunez aplikatzeko helburura heltzeko.
- (35) Erkidegoko lehiari buruzko legedia zuzen burutzearren, estatu kideek 81 eta 82. artikulua betetzen direla zaintzeko agintari publiko eskumendunak izendatu behar dituzte, eta beharrezko eskumenak euren egotzi. Estatu kideek ahalmena eduki behar dute Erregelamendu honek lehiari buruzko agintariei egotzen dizkien era askotako zereginak egiteko agintari administratiboak zein judizialak izendatzeko. Erregelamendu honek aitortzen duenez, estatu kideetan askotariko sistema publikoak daude legea betetzen dela bermatzeko. Erregelamendu honetako 11. artikuluko 6. paragrafoaren ondorioak lehiari buruzko agintari guztientzat izan behar dira baliozkoak. Arau orokor horren salbuespen, agintari instrukzio-egile batek auziak ebazpenerako beste agintari judizial baten irizpideari utzi behar dizkionean, 11. artikuluko 6. paragrafoa Erregelamendu honetako 35. artikuluko 4. paragrafoan ezarritako baldintzei lotuta aplikatuko zaio agintari instrukzio-egileari. Baldintza horiek betetzen ez direnean, arau orokorra aplikatu behar da. Nolanahi

¹ Kontseiluaren 2988/74 (CEE) Erregelamendua, 1974ko azaroaren 26koa, garraio-eskubidearen eta Europako Ekonomia Erkidegoaren arloetako jarduketaren eta burutzapen-gaietako preskripzioei buruzkoa (AO L 319, 1974.11.29, 1. or.).

ere, 11. artikuluko 6. paragrafoa ezin zaie organo jurisdikzionaleri aplikatu, horiek apelazioko auzitegi moduan jokutzen duten neurrian.

- (36) Jurisprudentiak argitu du jada lehia-arauak garraio-sektoreari aplikatzekoak direla; horrenbestez, sektore hori Erregelamendu honen prozedura-xedapenen pean izan behar da. Ondorioz, komeni da Kontseiluaren 141. Erregelamendua, 1962ko azaroaren 26koa, garraio-sektoreari 17. Erregelamendua ez aplikatzeko ⁽¹⁾, baliogabetzea eta 1017/68 ⁽²⁾, 4056/86 ⁽³⁾ zein 3975/87 CEE Erregelamenduak ⁽⁴⁾ aldatzea, bertan bildutako prozedurako xedapen espezifikoak ezabatzeko.
- (37) Erregelamendu honek oinarrizko eskubideak errespetatzen ditu, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean bereziki aitortutako printzipioak segitzen. Beraz, eskubide eta printzipio horiek errespetatu interpretatu eta aplikatu behar da.
- (38) Erkidegoko lehia-arauek araututako jardueretan diharduten enpresen segurtasun juridikoaren ondorioz, berrikuntza eta inbertsioak areagotu dira. Arau horien aplikazioari dagokionez, gai berriak edo konpondu gabekoak agertzeagatik benetako ziurgabetasun-egoera bat suertatzen denean, eraginpeko enpresek orientazio informalak eska diezazkiokete Batzordeari. Erregelamendu hau ez da eragozpena Batzordeak orientazio informal horiek eman diezazkien.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DU:

I. KAPITULUA

PRINTZIPIOAK

1. artikulua

Itunaren 81 eta 82. artikuluen aplikazioa

1.- Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoan zehaztutako akordio, erabaki eta praktika kontzertatuak, artikuluko horretako 3. paragrafoko baldintzak betetzen ez dituztenean, debekatuta daude eta ez da beharrezkoa alde aurreko erabakirik horretarako.

¹ AO L 124, 1962.11.28, 2751/62 or.; Erregelamendu horren azken aldaketa 1002/67 CEE Erregelamendua da (AO 306, 1967.12.16, 1. or).

² Kontseiluaren 1017/68 CEE Erregelamendua, 1968ko uztailaren 19koa, trenbide-, errepide- eta nabigazio-garraio sektoreei lehia-arauak aplikatzen dizkiena. Ikus AO L 175, 1968.7.23, 1. or.; Erregelamendu horren azken aldaketa 1994ko Atxikitze Akta da.

³ Kontseiluaren 4056/86 CEE Erregelamendua, 1986ko abenduaren 22koa, itsas garraioei Itunaren 81 eta 82. artikuluko aplikatzeko modalitateak zehazten dituena (Erregelamenduko titulua zuzendu egin dute, EE Eratzeko Itunaren artikuluetako zenbakiak kontuan hartzeko, Amsterdameko Itunaren 12. artikulua arabera: jatorriz, Itunaren 85 eta 86. artikuluei egiten zien erreferentzia). Ikus AO L 378, 1986.12.31, 4. or.; Erregelamendu horren azken aldaketa 1994ko Atxikitze Akta da.

⁴ Kontseiluaren 3975/87 CEE Erregelamendua, 1987ko abenduaren 14koa, aire-garraio sektoreko enpresentzat lehia-arauak garatzeko arauak ezartzen dituena. Ikus AO L 374, 1987.12.31, 1. or.; Erregelamendu horren azken aldaketa 2410/92 CEE Erregelamendua da (AO L 240, 1992.8.24, 18. or.).

2.- Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoan zehaztutako akordio, erabaki eta praktika kontzertatuak, artikuluko 3. paragrafoko baldintzak biltzen dituztenean, ez daude debekatuta eta ez da beharrezkoa alde aurreko erabakirik horretarako.

3.- Itunaren 82. artikuluan aurreikusitako nagusitza-posizio bat gehiegikeriaz baliatzea debekatuta dago eta ez da beharrezkoa alde aurreko erabakirik horretarako.

2. artikulua

Froga-zama

Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatu beharreko estatu eta Erkidegoko prozedura guztietan, Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoko edo 82. artikuluko arau-haustearen froga-zama alegatu duen alderdiari edo agintariari dagokio. Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoko xedapenetan babesa hartzen duen enpresak edo enpresa-elkarteak paragrafo horretan ezarritako baldintzak betetzen direlako froga eman behar du.

3. artikulua

Itunaren 81 eta 82. artikuluen eta estatuan estatuko lehia-arauen arteko erlazioa

1. Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak edo estatuan estatuko organo juridikzionalak, Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoaren zentzuan, akordio, enpresa-elkarteen erabaki edo praktika kontzertatuei estatuko lehiari buruzko Zuzenbidea aplikatzen diotenean, betiere xedapen horren arabera estatu kideen arteko merkataritzari eragin badiezaioke, akordio, erabaki edo praktika horiei, halaber, Itunaren 81. artikulua aplikatuko zaie. Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak edo estatuan estatuko organo juridikzionalak, Itunaren 82. artikulua debekatutako gehiegikeria-praktika bati lehiari buruzko estatu horretako Zuzenbidea aplikatzen diotenean, halaber, Itunaren 82. artikulua aplikatuko diote hari.

2. Estatuko lehiari buruzko Zuzenbidea aplikatzeak ezin du sortu akordio, enpresa-erabaki edo -elkarte edo praktika kontzertatuen debekurik, baldin eta horiek estatu kideen arteko merkataritzari eraginda ere 81. artikuluko 1. paragrafoaren zentzuan lehia murrizten ez badute, edo Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoko baldintzak betetzen badituzte, edo Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoaren aplikazioko erregelamendu batek babesten baditu. Erregelamendu honetan xedatutakoak ez die estatu kideei eragotziko euren lurraldeetan lege zorrotzagoak onartzea eta aplikatzea, enpresek alde bakarrez hartutako jokabide jakin batzuk debekatzearren edo zigortzearren.

3. Printzipio orokorrak eta Erkidegoko Zuzenbidearen gainontzeko xedapenak eragotzi gabe, 1 eta 2. paragrafoak ez dira aplikatuko lehiari buruzko estatu kideetako agintariak edo organo juridikzionalak kontzentrazioak kontrolatzeko estatuan estatuko xedapenak aplikatzen dituztenean, eta, halaber, ez dute galaraziko batez ere Itunaren 81 eta 82. artikuluetakoak bestelako helburu batera bideratutako estatuko Zuzenbideko xedapenak aplikatu ahal izatea.

II. KAPITULUA

ESKUMENAK

4. artikulua

Batzordearen Eskumenak

Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzearen, Batzordeak Erregelamendu honetan ezarritako eskumenak edukiko ditu.

5. artikulua

Lehiari buruzko estatu kideetako agintarien eskumena

Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak eskumenak dituzte auzi zehatzetan Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko. Horretarako, dela ofizioz, dela alderdi batek salatuz, hauek erabaki ditzakete:

- Arau-haustea bertan behera uzteko agindu
- Badaezpadako neurriak hartu
- Konpromisoak onartu
- Zigor-isunak, behartze-isunak edo estatu horretako Zuzenbideak finkatutako beste edozein zigor ezarri

Eskueran duten informazioak debeku baterako baldintzak betetzen direla akreditatzen ez duenean, esku hartzea bidezkoa ez dela ere erabaki dezakete.

6. artikulua

estatuan estatuko organo jurisdikzionalen eskumena

estatuan estatuko organo jurisdikzionalak eskumenak dituzte Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko.

III. KAPITULUA

BATZORDEAREN ERABAKIAK

7. artikulua

Arau-haustearen egiaztapena eta etetea

1. Batzordeak, dela ofizioz, dela alderdi batek salatuz, Itunaren 81 edo 82. artikulua urratu direla egiaztatzen duenean, erabaki bidez, eraginpeko enpresei eta enpresa-elkarteei egiaztatutako arau-haustea amai dezaten agin diezaieke.

Horretarako, edozein erremedio estruktural edo jokabideko ezarri ahal izango die, betiere neurrikoa eta arau-haustea bertan behera uzteko behar bestekoa. Erremedio estrukturalak eraginkortasun baliokideko jokabideko beste erremediorik ez dagoenean ezarri ahal izango dira soilik, edo, jokabideko erremedioak izanda ere, horiek enpresarentzat erremedio estrukturalak baino larriagoak direnean. Batzordeak horretarako interes legitimoa duenean, iraganean arau-hausterik eragin duten egiazta dezake.

2. 1. paragrafoaren ondorioetarako, ahalmena izango dute salaketak aurkezteko interes legitimoa akreditatzen duten pertsona fisikoek edo juridikoek eta estatu kideek.

8. artikulua

Zuhurtasunezko neurriak

1. Lehiarako kalte larria eta konponezina gertatzeko arriskuak justifikatutako premietan, Batzordeak, ofizioz jokatzuz, zuhurtasunezko neurriak har ditzake arau-hauste bat *prima facie* egotearen deklarazio batean oinarrituta erabaki bat baliatuz.

2. 1. paragrafoa aplikatuta hartutako erabaki guztiak aldi jakin batez aplikatu ahal izango dira eta berriro ahal izango dira, beharrezkoak eta egokiak diren neurrian.

9. artikulua

Konpromisoak

1. Arau-haustea eteteko agintzen duen erabaki bat hartzekotan dagoenean eta enpresa interesatuek Batzordeak bere atariko azterketan adierazitako kezkei aurre egiteko konpromisoak proposatzen dituztenean, Batzordeak, erabaki bidez, konpromiso horiek enpresentzat nahitaezko bihur ditzake. Erabakia denbora-aldi baterako hartu ahal izango da eta, bertan, agertuko da Batzordeak esku hartzeko arrazoirik jada ez dagoela.

2. Batzordeak, eskatuta edo bere ekimenez, prozedura berriro ireki ahal izango du, baldin eta:

- a) erabakiaren ezinbesteko elementu batekiko, egoeraren aldaketa bat gertatzen bada;
- b) eraginpeko enpresek euren konpromisoak betetzen ez badituzte; edo
- c) erabakia alderdiek emandako osatu gabeko, zehaztu gabeko edo engainuzko informazioetan oinarritu bada.

10. artikulua

Aplikaezintasuneko deklarazioa

Itunaren 81 eta 82. artikuluen aplikazioari buruzko Erkidegoko interes publikoak eskatzen duenean, Batzordeak, ofizioz hartutako erabaki bidez, Itunaren 81. artikulua akordio bati, enpresa-elkarteen erabaki bati edo praktika kontzertatu bati ezin zaiola aplikatu deklara dezake, dela Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoko baldintzak betetzen ez direlako, dela Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoko baldintzak biltzen direlako.

Batzordeak, halaber, deklarazio hau Itunaren 82. artikuluen arabera egin dezake.

IV. KAPITULUA

LANKIDETZA

11. artikulua

Batzordearen eta lehiari buruzko estatu kideetako agintarien arteko lankidetza

1. Batzordeak eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariek Erkidegoko lehia-arauak lankidetza estuan aplikatuko dituzte.
2. Batzordeak lehiari buruzko estatuko Kideetako agintariei bildutako dokumentu garrantzitsuenen kopia helaraziko die, 7, 8, 9, 10. artikulua eta 29. artikuluko 1. paragrafoa aplikatzearen. Lehiari buruzko estatu kide bateko agintariak hala eskatuta, Batzordeak auzia zehazki zertan den jakiteko beharrezko beste dokumentu batzuen kopia bat helaraziko die.
3. Lehiari buruzko estatu kideetako agintariek Itunaren 81 edo 82. artikuluen arabera jokatzeko dutenean, horren berri, Batzordeari emango diote, ikerketako lehenengo eginbide formalak egiteari ekin aurretik edo horiek hasi eta berehala. Informazio hori lehiari buruzko gainontzeko estatu kideetako agintariei ere helarazi ahal izango zaie.
4. Luzeen jota, arau-hauste bat etetea agintzeko, konpromisoak onartuak izateko edo kategoriaka salbuesteko erregelamendu baten babesaren kentzeko erabakia baino 30 egun lehenago, lehiari buruzko estatu kideetako agintari eskumendunek horren berri emango diote Batzordeari. Horretarako, auziaren azalpen laburra eta aurreikusitako erabakiaren testua aurkeztuko diote, edo, horren ezean, proposatutako ekintza-ildoak adierazten duen beste edozein dokumentu. Informazio hori lehiari buruzko gainontzeko estatu kideetako agintarien eskueran ere jar daiteke. Batzordeak hala eskatuta, auziaz arduratutako lehiari buruzko agintariak bere eskuetan dauzkan eta auzia ebaluatzeko beharrezkoak diren beste dokumentu batzuk Batzordearen eskueran utzi behar ditu. Batzordeari emandako informazioa lehiari buruzko gainontzeko estatu kideetako agintarien eskueran jar daiteke. Lehiari buruzko estatuan estatuko agintariek, halaber, beharrezko informazioa elkartruka dezakete Itunaren 81 eta 82. artikuluen babespean instrukzioan duten auzia ebaluatzeko.
5. Lehiari buruzko estatuan estatuko agintariek Batzordeari Erkidegoko zuzenbidea aplikatzearen edozein kasu kontsulta diezaiokete.

6. Batzordeak, III. Kapituluak aplikatuz, erabaki bat hartzera bideratutako prozedura batean hasten bada, lehiari buruzko estatu kideetako agintariei Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko eskumena kenduko die. Lehiari buruzko estatu kide bateko agintari bat jada auzi baten gainean jokatzeko ari bada, Batzordeak lehiari buruzko estatu horretako agintariari kontsultatu ondoren soilik hasiko du prozedura.

12. artikulua

Informazioa elkartrukatzea

1. Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzearen, Batzordeak eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariak ahalmena izan behar dute izatezko edo zuzenbidezko elementu oro elkarri emateko eta froga-bitarteko moduan baliatzeko, isilpeko informazioa barne.

2. Elkartrukatutako informazioa, soilik Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko froga-bitartekoa izan dadin balia daiteke, eta betiere agintari igorleak bilketa egitean izandako helburua errespetatu behar da. Dena den, lehiari buruzko estatuan estatuko Zuzenbidea lehiari buruzko Erkidegoko zuzenbidearekin paralelo auzi berari aplikatzean, betiere horrek emaitza desberdin bat eragiten ez badu, artikulua honen arabera elkartrukatutako informazioa lehiari buruzko estatuan estatuko Zuzenbidea aplikatzeko ere erabil daiteke.

3. 1. paragrafoaren arabera elkartrukatutako informazioa pertsona fisikoei zigorrak ezartzeko proba-bitarteko moduan erabil daiteke, baldin eta:

- agintari igorlearen legediak Itunaren 81 eta 82. artikuluetako arau-hausteekin erlazionatuta zigor-mota horiek ezartzen dituenean, edo, hala ez bada,
- agintari hartzailearen estatuko arauak ezarritako pertsona fisikoen defentsa-eskubidea babesteko maila bera errespetatuz informazioa lortu bada. Elkartrukatutako informazio hori, ordea, agintari hartzaileak ezin du askatasuna ukatzeko zigorrak ezartzeko baliatu.

13. artikulua

Prozedura etetea edo amaitzea

1. Lehiari buruzko hainbat estatu kideetako agintariak Itunaren 81 edo 82. artikulua araberako akordio, elkarrearen erabaki edo praktika beraren kontrako salaketa jaso edo ofizioz prozedura bat hasi dutenean, agintari bat instrukzio batean jardutea arrazoi nahikoa izango da gainontzeko agintariak euren prozedura eten dezaten edo salaketa ezets dezaten. Halaber, Batzorde batek salaketa bat ezets dezake lehiari buruzko estatu kide bateko agintari bat tramitatzen ariko balitz.

2. Lehiari buruzko estatu kide bateko agintariak edo Batzordeak lehiari buruzko beste agintari batek jada tratatutako beste akordio, elkarte baten erabaki edo praktika baten kontrako salaketa bat ezets dezakete.

14. artikulua

Aholku Lantaldea

1. Batzordeak Aholku Lantalde bati kontsultatuko dio praktika murriztaile eta nagusitza posizioei buruz 7, 8, 9, 10. artikuluko, 24. artikuluko 1. paragrafoa eta 29. artikuluko 1. paragrafoa aplikatuz edozein erabaki hartu aurretik.

2. Auzi zehatzei buruzko deliberazioetarako, Aholku Lantaldea lehiari buruzko estatu kideetako agintarien ordezkariak osatuko dute. Beste gai batzuk eztabaidatzen diren bileretarako, lehia-gaietan eskumenduna den estatu kideetako ordezkari gehigarri bat izenda daiteke. Ordezkariak beste batzuek ordezkari ditzakete bertaratu ezin direnean.

3. Batzordeak deitutako eta bera buru duen bilera batean egin daiteke kontsulta, eta deialdia igorri eta 14 egun baino lehenago ez da egingo. Deialdiari auziaren laburpen bat, dokumentu garrantzitsuenen zehazpen bat eta erabaki-aurreproiektu bat erantsiko zaio. 8. artikuluko arabera hartutako erabakiei dagokienez, bilera, erabaki-proiektuko mekanismoa igorri ondoren 7 egunen buruan egin ahal izango da. Batzordeak horiek baino epe laburragoak adierazten dituen deialdi bat igortzen duenean, bilera proposatutako egunean egin ahal izango da, betiere estatu kide batek ere eragozpenik adierazten ez badu. Aholku Lantaldeak ebazpen bat igorriko du Batzordearen erabaki-aurreproiektuari buruz, eta, bere kide batzuk bertaratu ez eta ordezkari ez badago ere, ebazpen bat eman ahalko du. Kide batek edo gehiagok eskatzen dutenean, ebazpenean adierazitako posizioak arrazoitu behar dira.

4. Kontsulta, halaber, idatzizko prozedura batez egin ahal izango da. Dena den, estatu kide batek hala eskatzen badu, Batzordeak bilera bat dei dezake. Idatzizko prozedurara joz gero, Batzordeak gutxienez 14 eguneko epea finkatuko du estatu kideek euren oharpenak adieraz ditzaten, eta gainontzeko estatu kideei jakinarazi behar zaizkie. 8. artikuluan xedatutako aplikatuz, ezer erabaki behar denean, 14 eguneko epearen ordezkari, epea 7 eguneko izango da. Idatzizko prozedurarako Batzordeak lehen aipatutako epea baino laburragoa zehazten duenean, proposatutako epea estatu kide batek eragozpenik adierazten ez badu izango da aplikagarria.

5. Batzordeak bereziki hartu behar du kontuan Aholku Lantaldeak igorritako ebazpena. Bere ebazpena kontuan hartzeko eraren berri emango dio lantaldeari.

6. Aholku Lantaldeak idatzizko ebazpen bat igortzen duenean, ebazpen hori erabaki-proiektuari erantsiko zaio. Aholku Lantaldeak ebazpena argitaratzeko aholkatzen badu, enpresen merkataritza-sekretuak ezagutzera ez emateko interes legitimoa behar bezala kontuan hartuz argitaratuko du Batzordeak.

7. Batzordeak, lehiari buruzko estatu kide bateko agintari batek eskatuta, Itunaren 81. edo 82. artikuluen arabera, lehiari buruzko estatu kide bateko agintariak instrukzioan daukan auziak Aholku Lantaldearen gai-zerrendara gehituko ditu. Batzordeak bere ekimenez ere egin ahal izango du hori. Kasu batean zein bestean, Batzordeak lehiari buruzko dagokion agintariari jakinaraziko dio.

Bereziki, lehiari buruzko estatu kide bateko agintariak, Batzordeak 11. artikuluko 6. paragrafoaren ondorioetarako prozedura hasi behar duen auziei buruz egin dezake eskaera hori.

Aholku Lantaldeak ez du ezer ebatziko lehiari buruzko estatu kideetako agintariak instrukzioan duten auziei buruz. Aholku Lantaldeak lehiari buruzko Erkidegoko zuzenbideari buruzko gai orokorrak ere eztabaida ditzake.

15. artikulua

estatuan estatuko organoekiko lankidetzak

1. Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko prozeduren esparruan, estatu kideetako organo juridikzionalak Batzordeari bere eskuetan daukan informazioa helarazteko eska diezaiokete, edo Erkidegoko lehia-arauen aplikazioko gaiei buruzko bere ebazpenak emateko.

2. Estatu kideek Itunaren 81 edo 82. artikuluen aplikazioari buruz auzitegiek emandako epaien testuaren kopia bat helaraziko diote Batzordeari. Kopia hori ahalik eta azkarren bidaliko da, epaiaren testu osoa aldeei jakinarazi ostean.

3. Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak, euren ekimenez, dagokion estatu kideko organo juridikzionalari idatzizko oharpenak aurkez diezazkiokete Itunaren 81 edo 82. artikuluen aplikazio-gaiei buruz. Dagokion auzitegiaren baimenarekin, estatuan estatuko organo juridikzionalari ere oharpenak aurkez diezazkiokete. Itunaren 81 eta 82. artikuluen aplikazio koherenteak hala eskatzen duenean, Batzordeak, bere ekimenez, estatu kideetako organo juridikzionalari idatzizko oharpenak aurkez diezazkieke. Dagokion organo juridikzionalaren baimenarekin, ahozko oharpenak ere aurkez ditzakete.

Euren oharpenak prestatzeko soilik, lehiari buruzko estatu kideetako agintariak eta Batzordeak dagokion auziaren balorazioa egiteko beharrezko dokumentuak igor diezazkien eska diezaiokete estatu kideko organo juridikzional eskumendunari.

4. Artikulu honek ez ditu eragozten organo juridikzionalatan oharpenak adierazteko lehiari buruzko estatu kideko zuzenbidearen botere zabalagoak.

16. artikulua

Erkidegoko lehia-araudiaren aplikazio uniformeak

1. Organo juridikzionalak Itunaren 81 eta 82. artikuluen arabera akordio, erabaki edo praktikei buruzko epaitza ematen dutenean eta, lehenago, Batzordeak horri buruz ezer erabaki badu, ezingo dute ebazpen bateraezinik hartu Batzordeak hartutako erabakiarekin. Saiatu behar dira, halaber, Batzordeak jada hasitako prozeduretan erabakitakoarekin gatazkan sar daitekeen ezer ez erabakitzen. Horretarako, estatuan estatuko organo juridikzionalari dagokie euren prozedura eten ote daitekeen ikustea. Obligazio horrek ez ditu eragozten Itunaren 234. artikulua finkatutako eskubide eta obligazioak.

2. Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak Batzordeak jada erabakitako 81 edo 82. artikuluko akordio, erabaki edo praktikei buruz erabakitzen dutenean, ezin dute Batzordeak erabakitako ezerekin bat ez datorren erabakirik hartu.

V. KAPITULUA

IKERTZEKO BOTEREAK

17. artikulua

Sektore ekonomikoen eta akordio-moten arabera ikerketa

1. Estatu kideen arteko elkartrukeen bilakaerak, prezioen zurruntasunak edo beste zirkunstantzia batzuek Erkidego komunaren barneko lehia mugatu edo faltsu daitekeela pentsatzeko modua ematen dutenean, Batzordeak ekonomiako sektore jakin baten edo hainbat sektore ekonomikotako ohiko akordio jakin batzuen ikerketa orokorra egin dezake. Horretan, Batzordeak Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko behar informazioa bil dezake, eta horretarako beharrezko ikuskapenak egin.

Bereziki, Batzordeak akordio, erabaki eta praktika kontzertatu guztiak jakinaraz diezazkioten eska diezaike dagokion sektoreko enpresei edo enpresa-elkarteei.

Batzordeak sektore ekonomiko jakin batzuei edo hainbat sektoretako ohiko akordio-mota batzuei buruzko txosten bat argitara dezake, eta alderdi interesatuei euren oharpenak helaraz diezazkioten eska diezaike.

2. Analogiaz, 14, 18, 19, 20, 22, 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

18. artikulua

Informazio-eskaerak

1. Erregelamendu honek esleitutako egitekoak burutzeko, Batzordeak, erabaki bidez edo eskaera soil batez, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eman diezaioten eska diezaike enpresei eta enpresa-elkarteei.

2. Batzordeak, enpresa bati edo enpresa-elkarte bati informazio-eskaera soil bat bidaltzen dionean, horren oinarri juridikoa eta eskaeraren xedea adierazi behar du, baita eskatutako informazioa zehaztu eta hori emateko epea finkatu ere; gainera, zehaztu gabeko edo engainuzko informazioa emanaz gero, 23. artikuluan ezarritako zigorrek aipatuko ditu.

3. Erabaki bidez, Batzordeak, enpresei edo enpresa-elkarteei informazioa eman diezaioten eskatzen dienean, oinarri juridikoa eta eskaeraren xedea adieraziko ditu, baita eskatutako informazioa zehaztu eta hori emateko epea finkatu ere. 23. artikuluan ezarritako zigorrei ere erreferentzia egingo die, eta 24. artikuluan ezarritako zigorrek adierazi edo ezarriko ditu. Halaber, Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegian erabakiaren kontra errekurtsua jartzeko eskubidea jakinaraziko die.

4. Behartuta daude eskatutako informazioa eraginpeko enpresaren edo enpresa-elkartearen izenean enpresa-jabeek edo euren ordezkariak ematera eta, pertsona

juridikoak, nortasun juridikorik gabeko sozietateak edo elkarteak badira, legearen edo estatutuen arabera, ordezkari-lanen ardura duten pertsonak. Behar bezala gaitutako abokatuek, eskatutako informazioa eman dezakete euren ordezkarien izenean, eta azken horiek izango dira emandako informazioak osoak, zehatzak eta indarrean izatearen erantzule osoak.

5. Batzordeak eskaera soilaren edo erabakiaren kopia bat luze gabe helaraziko dio enpresaren edo enpresa-elkartearen egoitza dagoen lurraldearen estatu kideko lehiari buruzko agintariari (baita eraginpeko lurraldearen estatu kideko lehiari buruzko agintariari ere).

6. Batzordeak hala eskatzen dienean, Gobernuak eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariak Erregelamendu honek egotzitako egitekoak burutzeko behar beste informazio eman behar diote.

19. artikulua

Deklarazioak biltzeko aukera

1. Erregelamendu honek esleitutako egitekoak burutzeko, ikerketarako informazioa biltzeko elkarrizketatua izatea onartzen duen pertsona fisiko edo juridiko guztiak entzun ahal izango ditu Batzordeak.

2. 1. paragrafoan adierazitako elkarrizketa enpresaren lokaletan egiten denean, lehiari buruzko estatu kideko agintariari horren berri emango dio Batzordeak. Lehiari buruzko estatu kide horretako agintariak hala eskatzen badu, bere agenteek Batzordeak akreditatutako agentei eta gainontzeko pertsonari lagundu ahal izango die elkarrizketa egiten.

20. artikulua

Ikuskapen-gaietan Batzordeak dauzkan botereak

1. Erregelamendu honek egotzitako egitekoak burutzeko, Batzordeak behar beste ikuskapen egin ahal izango ditu enpresetan edo enpresa-elkartean.

2. Batzordeak akreditatutako agenteek eta gainontzeko pertsonak ahalmena izango dute:

- a) enpresen eta enpresa-elkarteen lokal, lursail eta garraiobide guztietara sartzeko;
- b) liburuak eta beste edozein dokumentazio profesional aztertzeko, horien euskarri materiala zein den gorabehera;
- c) edozein formatutan, liburu horien edo dokumentazioaren kopiak edo laburpenak egiteko;
- d) ikuskapenerako beharrezkoa den neurrian eta denboran, enpresako edozein lokaletan eta liburu edo dokumentaziotan zigiluak jartzeko;
- e) enpresako edo enpresa-elkarteko edozein ordezkari edo langileri ikuskapenaren xedeko eta helburuko gertaera edo dokumentuei buruzko azalpenak eskatzeko eta euren erantzunen berri gordetzeko.

3. Batzordeak akreditatutako agenteek eta gainontzeko pertsonak, ikuskapena egin eta euren botereak baliatzeko, idatzizko agindu bat aurkeztuko dute eta, bertan,

ikuskapenaren xedea eta helburua adieraziko dira, baita, eskatutako liburuak edo beste dokumentu profesional batzuk osatu gabe aurkeztekotan eta artikuluko honen 2. paragrafoa aplikatuz egindako galderen erantzunak zehaztu gabeak edo indargabeak izatekotan, 23. artikuluan ezarritako zigorrek ere. Batzordeak ikuskapenaren xedearen berri emango dio hori egingo den lurraldearen estatu kideko lehiari buruzko agintariari, betiere behar besteko aurrerapenaz.

4. Enpresak eta enpresa-elkartek behartuta daude Batzordeak, erabaki bidez, agindutako ikuskapenei men egitera. Erabakiak ikuskapenaren xedea eta helburua, noiz hasiko den eta 23. zein 24. artikuluetan ezarritako zigorrek adieraziko ditu, baita Justizia Auzitegian errekurtsioa jartzeko eskubidea dagoela ere. Batzordeak, ikuskapena egin beharreko lurraldearen estatu kideko lehiari buruzko agintariari kontsultatu ondoren hartuko ditu erabaki horiek.

5. Ikuskapena egin beharreko lurraldearen estatu kideko lehiari buruzko agintariaren agenteek, baita horrek baimendutako edo izendatutako gainontzeko pertsonak ere, Batzordeak horretarako akreditatutako agentei eta gainontzeko pertsonari laguntza eman behar diete agintari horrek edo Batzordeak hala eskatzen duenean. Horretarako, 2. paragrafoan definitutako botereak izango dituzte.

6. Batzordeak horretarako akreditatutako agenteek eta gainontzeko pertsonak, artikuluko honen arabera araututako ikuskapena egiteari enpresak uko egiten diola egiaztatzen dutenean, estatu kide interesatuak beharrezko laguntza emango die, eta, behar izatekotan, poliziaren edo indar publikoaren erabilera baliatuko, euren ikuskapenaren xedea egitearren.

7. Baldin eta estatuko araudiaren arabera, 6. paragrafoan ezarritako laguntzak agindu judiziala eskatzen badu, dagokion eskaera egingo da, eta prebentzio-izaeraz ere eska daiteke.

8. 7. paragrafoan zehaztutako agindua eskatzen denean, estatuan estatuko epaileak egiaztatutako du Batzordearen erabakia benetakoa dela eta aurreikusitako behartze-neurriak ikuskapenaren xedeari lotuta arbitrarioak eta neurrigabeak ez direla. Aurreikusitako behartze-neurriak neurrikoak direla egiaztatzen duenean, estatu horretako epaileak, zuzenean edo lehiari buruzko estatu kideko agintariaren bidez, Batzordeari eska diezaioke Itunaren 81. eta 82. artikuluko urratu direla susmatzeko zer arrazoi dituen esplikatzeko, baita ustezko arau-haustearen larritasuna eta enpresa horren partaidetzaren izaera ere. Dena den, estatuan estatuko epaileak ezin du auzitan jarri ikuskapena egiteko beharra, ezta Batzordearen espedientean agertzen den informazioa eman diezaioten exijitzeko ere. Justizia Auzitegiari dagokio Batzordearen erabakia legezkoa dela kontrolatzea.

21. artikulua

Beste lokal batzuen ikuskapena

1. Baldin eta beste lokal, lursail edo garraiobide batzuetan, baita enpresaburuen, administratzaileen eta eraginpeko enpresako edo enpresa-elkarteko beste langile batzuen etxeetan ere, Itunaren 81. edo 82. artikuluen arau-hauste larria frogatzeko balio dezaketen enpresari buruzko eta ikuskapenaren xedeko liburuak edo dokumentazioa egotearen arrazoizko susmoa badago, Batzordeak agin dezake, erabaki bidez, lokal, lursail eta garraiobide horiek ikuskatzeko.

2. Erabakiak ikuskapenaren helburua eta xedea zehaztu behar ditu, baita horren hasiera-data adieraziko eta Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren erabakiaren kontra errekurtsoa jartzeko eskubidearen berri emango. Erabakiak bereziki adieraziko du Batzordearen susmoa zer arrazoitan oinarritzen den, 1. paragrafoaren arabera. Batzordeak ikuskapena egin beharreko lurraldearen estatu kideko lehiari buruzko agintariari kontsultatu ondoren hartuko ditu erabaki horiek.

3. 1. paragrafoaren arabera hartutako erabakiak eraginpeko estatu kideko epaile baten agindu judizialaz baizik ezingo dira aurrera eraman. Estatuko epaile horrek Batzordearen erabakia benetakoa dela eta aurreikusitako behartze-neurriak ikuskapenaren xedeari lotuta arbitrarioak eta neurrigabeak ez direla egiaztatuko du, kontuan hartuz, bereziki, ustezko arau-haustearen larria, bilatutako frogen garrantzia, dagokion enpresak arau-haustean daukan partaidetza eta ikuskapenaren xedeari buruzko liburuak eta erregistroak eskatutako agindu judizialaren xedeko lokaletan egotearen arrazoizko probabilitatea. Estatuan estatuko epaileak, zuzenean edo lehiari buruzko estatu kideko agintariaren bidez, aurreikusitako behartze-neurrien proportzionaltasuna egiaztatzeko beharrezko elementuei buruzko azalpen zehatzak eska diezazkioke Batzordeari.

Dena den, estatuan estatuko epaileak ezin du auzitan jarri ikuskapena egiteko beharra, ezta Batzordearen espedientean agertzen den informazioa eman diezaioten exijitzeko ere. Justizia Auzitegiari dagokio Batzordearen erabakia legezkoa dela kontrolatzea.

4. Artikulu honetako 1. paragrafoaren arabera agindutako ikuskapena egiteko, Batzordeak akreditatutako agenteek eta gainontzeko pertsonak 20. artikuluko 2. paragrafoaren a), b) eta c) letretan aurreikusitako botereak izango dituzte. Analogiaz, 20. artikuluko 5 eta 6. paragrafoak aplikatuko dira.

22. artikulua

Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak egindako ikerketak

1. Lehiari buruzko estatu kide bateko agintari batek, bere estatuko Zuzenbidearen babesaz, bere lurraldean edozein ikuskapen edo ikerketa-neurri egin dezake lehiari buruzko beste estatu kide bateko agintari baten izenean eta kontura, Itunaren 81 edo 82. artikuluko arau-haustea gertatu dela frogatzearen. Bildutako informazioaren edozein elkartruke eta erabilera 12. artikulua aplikatuz egingo da.

2. Batzordeak hala eskatuta, lehiari buruzko estatu kideetako agintariak, Batzordeak 20. artikuluko 1. paragrafoaren arabera egoki ikusten dituen edo 20. artikuluko 4. paragrafoa aplikatuz hartutako erabaki bidez, hark agindu dituen ikuskapenak egingo dituzte. Ikuskapenak egiteaz arduratutako lehiari buruzko estatu kideetako agintariak, baita euren baimenduta edo izendatutako gainontzeko pertsonak ere, euren estatuko Zuzenbidean finkatutakoaren arabera baliatuko dituzte euren botereak.

Batzordeak edo ikuskapena egin beharreko lurraldearen estatu kideko lehiari buruzko agintariak hala eskatuta, Batzordeak akreditatutako agenteek eta gainontzeko pertsonak dagokion agintariaren agenteei laguntza eman ahal izango diete.

VI. KAPITULUA

ZIGORRAK

23. artikulua

Zigor-isunak

1. Batzordeak, erabaki bidez, sozietatearen aurreko ekitaldian burututako guztizko negozio-bolumenaren % 1erainoko isunak jar diezazkieke enpresei eta enpresa-elkarteei, baldin eta berariaz edo zabarkeriaz:

a) 17. artikulua edo 18. artikuluko 2. paragrafoa aplikatuz adierazitako eskaera bati erantzunez, zehaztu gabeko edo engainuzko informazioa ematen ez badute;

b) 17. artikulua edo 18. artikuluko 3. paragrafoaren arabera hartutako erabaki bidez adierazitako eskaera bati erantzunez, zehaztu gabeko, osatu gabeko edo engainuzko informazioa ematen badute, edo informazioa finkatutako epean ematen ez badute;

c) 20. artikulua arabera egindako ikuskapenetan, eskatutako liburu edo beste dokumentu profesionalak osatu gabe aurkezten badituzte, edo 20. artikuluko 4. paragrafoa aplikatuz hartutako erabaki bidez agindutako ikuskapenei men egiten ez badiete;

d) 20. artikuluko 2. paragrafoaren e) letraren arabera adierazitako galdera bati erantzunez,

– zehaztu gabeko edo engainuzko erantzuna ematen badute;

– euren langile batek adierazitako okerreko, zehaztu gabeko edo engainuzko erantzun bat Batzordeak zehaztutako gehienezko epean zuzentzen ez badute; edo

– 20. artikuluko 4. paragrafoaren arabera hartutako erabaki bidez agindutako ikuskapenaren xede eta helburuko gertaerei buruz, erantzun osoa eman ez edo erantzun osoa emateari uko egiten badiote;

e) Batzordeak gaitutako agenteek edo bere laguntzaileek 20. artikuluko 2. paragrafoaren e) letra aplikatuz jarritako zigiluak hausten badituzte.

2. Batzordeak, erabaki bidez, isunak jar diezazkieke enpresei eta enpresa-elkarteei, baldin eta berariaz edo zabarkeriaz:

a) Itunaren 81 edo 82. artikuluko xedapenak urratzen badituzte;

b) Erregelamendu honen 8. artikulua arabera hartutako badaezpadako neurriak agintzen dituen erabaki bat hausten badute;

c) Erregelamendu honen 9. artikulua arabera, erabaki bidez indar loteslea duen konpromiso bat errespetatzen ez badute.

Arau-haustean parte hartzen duen enpresa edo enpresa-elkarte bakoitzerako isunak ezingo du gainditu sozietatearen aurreko ekitaldian burututako guztizko negozio-bolumenaren % 10.

Elkarte baten arau-haustea bere kideen jardueri lotuta dagoenean, isunak ezingo du gainditu elkartearen arau-haustearen eraginpeko jarduera duten merkatuko kide bakoitzaren sozietatearen aurreko ekitaldian burututako guztizko negozio-bolumeneko zenbatekoaren % 10.

3. Isunaren zenbatekoa zehaztearren, bidezkoa izango da, arau-haustearen larritasuna ez ezik, haren iraupena kontuan hartzea.

4. Enpresa-elkarte bati isuna bere kideen negozio-bolumena kontuan hartuz jartzen zaionean eta horiek kaudimenik ez daukatenean, elkarte behartuta dago isunaren zenbatekora heldu arte bere kideen ekarpenak biltzera.

Elkarteari ekarpen horiek Batzordeak finkatutako epean jartzen ez bazaizkio, Batzordeak dagokion elkarteko gobernu-organoetan ordezkaria duen edozein enpresari exiji diezaioke isuna pagatzeko.

Batzordeak bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera pagatzeko errekeritu duenean, arau-haustea gertatutako merkatuan diharduen edozein elkartekideri saldoa ordaintzeko exiji diezaioke, isuna osoki pagatzen dela bermatzeko beharrezkoa denean.

Batzordeak, baina, ez die bigarren edo hirugarren paragrafoetan aurreikusitako ordainketa exijituko arau-haustea burutu duen elkartearen erabakia aplikatu ez dutela frogatzen duten enpresei, eta existitzen zela ez zekitenei edo, Batzordeak auziaren ikerketa hasi aurretik, horretatik aktiboki urundu zirenei.

Enpresa bakoitzaren isunaren ordainketari buruzko finantza-erantzukizunak ezingo du gainditu sozietatearen aurreko ekitaldian burututako guztizko negozio-bolumenaren % 10.

5. 1. eta 2. paragrafoak aplikatuz hartutako erabakiek ez dute izaera penalik edukiko.

24. artikulua

Behartze-isunak

1. Batzordeak, erabaki bidez, sozietatearen aurreko ekitaldian burututako eguneroko batez besteko negozio-bolumenaren % 5erainoko behartze-isunak jar diezazkieke enpresei eta enpresa-elkarteei Batzordearen erabakian finkatutako datatik zenbatutako atzerapen-egun bakoitzeko, hauetara behartzeko:

- a) Itunaren 81 edo 82. artikuluko xedapenak urratzen amaitzea, Erregelamendu honen 7. artikulua aplikatuz hartutako erabakiaren arabera;
- b) badaezpadako neurriak agintzeko, 8. artikulua aplikatuz hartutako erabaki bat betetzea;
- c) 9. artikulua arabera, indar lotesleko erabakiz hartutako konpromisoa betetzea;
- d) 17. artikulua edo 18. artikuluko 3. paragrafoa aplikatuz hartutako erabaki bidez, Batzordeak eskatutako informazioa osoki eta zehaztasunez ematea;
- e) erabaki bidez agindutako ikuskapen bati men egitea, 20. artikuluko 4. paragrafoa aplikatuz.

2. Enpresek edo enpresa-elkarteei, ezarritako behartze-isunaren betebeharra burutu dutenean, Batzordeak azken erabakitik sortutako kopurutik beherako behin betiko zenbateko bat finkatu ahal izango du. Analogiaz, 23. artikuluko 4. paragrafoak aplikatuko dira.

VII. KAPITULUA

PRESKRIPZIOA

25. artikulua

Zigorren ezartze-gaietako preskripzioa

1. Batzordeari 23 eta 24. artikuluen arabera egotzitako botereek ondorengo preskripzio-epeak izango dituzte:
 - a) hiru urte, informazio-eskaerei edo ikuskapenen burutzapenari buruzko xedapenak hausteari dagokionez;
 - b) bost urte, gainontzeko arau-hausteei dagokienez.
2. Preskripzio-epea arau-haustea gertatutako egunetik hasiko da zenbatzen. Dena den, arau-haustea etengabe edo behin eta berriz gertatzekotan, preskripzioa arau-haustea amaitzeko egunetik hasiko da zenbatzen.
3. Zigor-isunen edo behartze-isunen ezartze-gaietan, Batzordearen edo lehiari buruzko estatu kideko agintariaren instrukziorako edo arau-haustearen ikerketarako edozein egintzak etengo du preskripzioa. Preskripzioa arau-haustean parte hartutako enpresa edo enpresa-elkarte bati gutxienez egintza jakinarazten zaion datatik etengo da. Hauek izango dira, besteak beste, preskripzioa eteten duten egintzak:
 - a) Batzordeak edo lehiari buruzko estatu kideko agintariak idatzizko informazioari buruzko eskaera egitea;
 - b) Batzordeak bere agenteei edo lehiari buruzko estatu kideko agintariak ikuskapenerako idatzizko aginduak igortzea;
 - c) Batzordeak edo lehiari buruzko estatu kide bateko agintari batek prozedura bat hastea;
 - d) Batzordeak edo lehiari buruzko estatu kide bateko agintari batek prestatutako kargu-plegua jakinaraztea.
4. Preskripzioak arau-haustean parte hartutako enpresa eta enpresa-elkarte guztientzat izango du balioa.
5. Preskripzio-epea, etete bakoitzetik hasiko da berriz zenbatzen. Dena den, preskripzioa heldutzat hartuko da Batzordeak zigor- edo behartze-isuna jarri gabe gehienez preskripzio-epearen bikoitzaren berdina betetzen den egunean. Epe hori 6. paragrafoaren arabera preskripzioa eteten den aldia beste luzatuko da.
6. Zigor- edo behartze-isunak jartzea eten egingo da Batzordearen erabakia Justizia Auzitegiaren prozedura baten xede den bitartean.

26. artikulua

Zehapenak betearaztearen inguruko preskripzioa

1. 23 eta 24. artikulua aplikatuz hartutako erabakiak burutzeko Batzordearen botereak bost urteko preskripzio-epea izango du.
2. Erabakia irmoa den egunetik hasiko da zenbatzen preskripzio-epea.

3. Zehapenak betearaztearen inguruan, hauek etengo dute preskripzioa:

- a) Zehapen- edo behartze-isun baten hasierako zenbatekoa aldatzen duen edo aldaketa hori lortzera bideratutako eskaera bat ezesten duen erabaki bat jakinaraztea;
- b) Batzordearen edo estatuak eskatuta jokatzeko duen estatu kide baten edozein egintza, bide betearazletik zehapen- edo behartze-isuna biltzera bideratuta dagoenean.

4. Preskripzio-epea, etete bakoitzetik hasiko da berriz zenbatzen.

5. Zehapenak betearaztearen inguruan, preskripzioa eten egiten da honelakoetan:

- a) ordaintzeko emandako epeak iraun bitartean;
- b) Justizia Auzitegiaren erabaki baten arabera, bide betearazletik kobratzeko etenaldiak iraun bitartean.

VIII. KAPITULUA

ENTZUNALDIA ETA SEKRETU PROFESIONALA

27. artikulua

Alderdien, salatzaileen eta hirugarrenen entzunaldia

1. 7, 8 eta 23. artikuluetan eta 24. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako erabakiak hartu aurretik, Batzordeak, egotzitako karguei buruzko iritzia adierazteko aukera emango die bere instrukziopeko prozedurako enpresei edo enpresa-elkarteei. Batzordeak, alderdi interesatuek aurkeztutako oharpenei lotutako karguetan oinarrituko ditu bere erabakiak. Salatzaileek gertutik parte hartuko dute prozeduran.

2. Alderdien defentsa-eskubideak erabat daude bermatuta prozedura osoan. Batzordearen espedientea eskuratzeko eskubidea izango dute, enpresek euren merkataritza-sekretuak babesteko duten interes legitimoa eragotzi gabe. Ezingo da isilpeko informazioa eskuratu, ezta Batzordearen edo lehiari buruzko estatu kideetako agintarien barne-dokumentuak ere. Bereziki, espedientea eskuratzeko eskubidea ez dago indarrean Batzordearen eta lehiari buruzko estatu kideetako agintarien edo azken horien arteko korrespondentzia-trukerako, 11 eta 14. artikuluen arabera prestatutako dokumentuetarako barne. Paragrafo honetan xedatutakoak ez du eragotziko Batzordeak arau-hauste bat frogatzeko beharrezko informazioa erabili edo zabaldu ahal izatea.

3. Batzordeak beharrezko ikusten duen guztietan, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk entzun ditzake. Baldin eta interes nahikoa dutela justifikatzen duten pertsona fisikoek edo juridikoek entzunak izatea eskatuko balute, onartuko da euren eskaera. Lehiari buruzko estatu kideetako agintariak, halaber, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk entzunak izateko eska dezakete.

4. Batzordeak 9 edo 10. artikuluen arabera ezer erabakitzeko deliberoa hartzen duenean, auziaren eta konpromisoen edo proposatutako ekintza-ildoaren oinarritzko edukiaren laburpen motz bat argitaratutako du. Hirugarren interesatuek oharpenak

aurkez ditzakete Batzordeak bere argitalpenean finkatutako epean, betiere ez hilabete baino laburragoan. Argitalpenak merkataritza-sekretuak babesteko enpresen interes legitimoa errespetatuko du.

28. artikulua

Sekretu profesionala

1. 12 eta 15. artikuluko eragotzi gabe, 17tik 22rainoko artikuluko aplikatuz bildutako informazioa bilketaren helbururako soilik erabil daiteke.

2. 11, 12, 14, 15 eta 27. artikuluetan ezarritako informazioaren elkartrukea eta erabilera eragotzi gabe, Batzordea eta lehiari buruzko estatu kideetako agintariak eta euren funtzionarioak, agenteak eta agintari horien gainbegirapenean lan egiten duten pertsonak, baita estatu kideetako beste agintari batzuen agenteak ere, behartuta daude Erregelamendu hau aplikatuz bildutako edo elkartrukatutako informazioaren berri ez zabaltzera, haren izaeragatik eta sekretu profesionalak babestuta egoteagatik. Betebehar hori Aholku Lantaldearen bileretan parte hartzen duten estatu kideetako ordezkari guztiei aplikatuko zaie halaber, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

IX. KAPITULUA

SALBUESTEKO ERREGELAMENDUA

29. artikulua

Banaka kendutako salbuespenak

1. Kontseiluaren Erregelamendu baten ahalmenez, adibidez, 19/65/CEE, 2821/71 (CEE), 3976/87 (CEE), 1534/91 (CEE) edo 479/92 (CEE), Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzearen, Batzordeak, akordio, enpresa-elkarteen erabaki edo praktika kontzertatuko kategoria batzuetarako Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoa aplikagarria ez dela deklaratzeko duenean, eskatuta edo bere ekimenez, salbuesteko erregelamendu horren babesa kendu ahal izango die, baldin eta, bere ustez, kasu zehatz batean, salbuesteko erregelamendu bat aplikatuta daukan akordio, erabaki edo praktika kontzertatu batek Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoarekin bateraezinak diren ondorio jakin batzuk baditu.

2. Kasu jakin batean, 1. paragrafoan aurreikusitako Batzordearen Erregelamenduetako bat aplikatuta daukaten akordio, enpresa-elkarteen erabaki edo praktika kontzertatuak daudenean eta, estatu kide bateko lurraldean edo merkatu geografiko desberdin baten ezaugarria guztiak dituen lurralde horretako zati batean, Itunaren 81. artikuluko 3. idatz.-zatiarekin bateraezinak diren ondorioak eragiten dutenetan, lurralde horri dagokionez, lehiari buruzko estatu kide horretako agintariak erregelamendu horren babesa kendu ahal izango die.

X. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

30. artikulua

Erabakien argitalpena

1. Batzordeak 7-10, 23 eta 24. artikulua aplikatuz hartutako erabakiak argitaratuko ditu.

2. Argitaratuta alderdien izenak eta erabakiaren eduki nagusia agertuko dira, ezarritako zigorrak barne. Bertan, enpresen merkataritza-sekretuak ezagutzera ez emateko interes legitimoa behar bezala hartu behar da kontuan.

31. artikulua

Justizia Auzitegiaren kontrola

Justizia Auzitegiak eskumen jurisdikzional osoa izango du Batzordeak zehapen- edo behartze-isuna finkatzen duen erabakien kontra aurkeztutako errekursoak ebazteko. Ezarritako zehapen- edo behartze-isuna kendu, murriztu edo handitu ahal izango du.

32. artikulua

Aplikazio-esparrutik baztertuak

Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko:

- a) nazioarteko pleitatze-erregimeneko zerbitzuei («tramp»), horiek 4056/86 (CEE) Erregelamenduaren 1. artikuluko 3. paragrafoaren a) letran definitu bezala;
- b) estatu kide bateko portuen artean soilik egindako itsas garraioko zerbitzuari, 4056/86 CEE Erregelamenduaren 1. artikuluko 2. paragrafoan ezarri bezala;
- c) Erkidegoko eta hirugarren herrialdeetako aireportuen arteko aire-garraioari.

33. artikulua

Garapen-arauak

1. Batzordeak egoki ikusten dituen behar beste xedapen aplikatu ditzake Erregelamendu hau aplikatzearen. Xedapen horiek hauei egingo diete erreferentzia, besteak beste:

- a) 7. artikulua arabera aurkeztutako salaketan forma, eduki eta gainontzeko zehetasunei, baita salaketak ezesteari aplikatutako prozedurari ere;

- b) informazio-elkartrukeko alderdi praktikoei eta 11. artikuluan ezarritako kontsultei;
- c) 27. artikuluan ezarritako entzunaldiei buruzko alderdi praktikoei.

2. 1. paragrafoaren arabera edozein xedapen hartu aurretik, Batzordeak horri buruzko proiektu bat argitaratu du eta, ezartzen duen epean (betiere hilabete baino laburragoa), alderdi interesatu guztiek euren komentarioak aurkez ditzaten gonbidatu ditu. Xedapen-proiektu bat argitaratu aurretik eta onartu aurretik, Batzordeak praktika murriztaile eta nagusitza-posizioei buruz kontsultatuko dio Aholku Lantaldeari.

XI .KAPITULUA

XEDAPEN IRAGANKORRAK, ALDARAZLEAK ETA AZKENAK

34. artikulua

Xedapen iragankorrak

1. 17 Erregelamenduaren 2. artikulua aplikatuz Batzordeari aurkeztutako eskaerak eta Erregelamendu horren 4. eta 5. artikulua aplikatuz egindako jakinarazpenak, baita 1017/68 (CEE), 4056/86 (CEE) eta 3975/87 (CEE) Erregelamenduak aplikatuz egindakoak, balio gabe geratuko dira Erregelamendu hau aplikatzen denetik.

2. 17. Erregelamendua eta 1017/68 (CEE), 4056/86 (CEE) eta 3975/87 (CEE) Erregelamenduak aplikatuz burututako prozedura-egintzek euren ondorioak gordeko dituzte Erregelamendu hau aplikatzeko orduan.

35. artikulua

Lehiari buruzko estatu kideetako agintarien izendapena

1. Estatu kideek Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko lehiari buruzko agintari eskumenduna(k) izendatuko dute (dituzte), Erregelamendu honetan xedatutakoa benetan betetzen dela zain deza(te)n. Itunaren 81 eta 82. artikulua aplikatzeko botereak emateko beharrezko neurriak, 2004ko maiatzaren 1a baino lehen hartuko dira. Izendatutako agintarietan, organo jurisdikzionalak egon daitezke.

2. Lehia-gaietako Erkidegoko legedia burutzea estatuan estatuko agintari administratibo eta judizialei egozten zaienean, estatu kideek era askotako botereak eta funtzioak esleitzen diezazkiekete estatuan estatuko agintari horiei, direla administratiboak, direla judizialak.

3. 11. artikuluko 6. paragrafoan xedatutakoa estatu kideek izendatutako agintariei aplikatuko zaie, baita 5. artikuluan ezarritako erabaki-motak hartu eta prestatzeko zereginetan diharduten organo jurisdikzionalak ere. Aldiz, 11. artikuluko 6.

paragrafoan xedatutakoa organo jurisdikzionaleri ez zaie aplikatuko 5. artikuluan ezarritako erabaki-motei buruzko apelazioko auzitegi moduan jokatzen dutenean.

4. 3. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, betiere paragrafo honetako baldintzak betetzen badira, agintari instrukzio-egile batek beste agintari judizial espezifikoko bati Erregelamendu honen 5. artikuluan ezarritako erabaki-motak har ditzan bere ondorioak aurkeztea aurreikusita duten estatu kideetan, 11. artikuluko 6. paragrafoaren aplikazioak agintari instrukzio-egileari eragingo dio soilik; horrenbestez, agintari horrek kendu egingo du bere demanda eta, hartara, agintari judizialaren estatuan estatuko prozedura amaitu egingo da Batzordeak bere prozedura hasten duenean.

36. artikulua

1017/68 (CEE) Erregelamenduaren aldaketa

1017/68 (CEE) Erregelamendua era honetan aldatuko da:

1) 2. artikulua indargabetu egingo da.

2) 3. artikuluko 1. paragrafoan, «2. artikuluan adierazitako debekua» adierazpena «Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoko debekua»k ordezkatuko du.

3) 4. artikulua honela aldatuko da:

a) 1. paragrafoan, «2. artikuluan aipatutako akordio, erabaki eta praktika kontzertatuak» adierazpena «Itunaren 81. artikuluko 1. paragrafoaren arabera kontzertatutako akordio, erabaki eta praktikak»ek ordezkatuko du;

b) 2. paragrafoa testu honek ordezkatuko du:

«2. 1. paragrafoan aipatutako akordio, erabaki edo praktika kontzertatuak aplikatzeak, kasu batzuetan, Itunaren 81. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako baldintzekin ondorio bateraezinak eragiten dituztenean, enpresak eta enpresa-elkarteak ondorio horiek etetera behartuak izan daitezke».

4) 5etik 29rainoko artikulua indargabetu egingo dira, 13. artikuluko 3. paragrafoa izan ezik (artean, Erregelamendu honen aplikazioko dataren aurretik erabaki horiek amaitzeko data arte, 1017/68 (CEE) Erregelamenduaren 5. artikuluan arabera hartutako erabakiei aplikatuko zaie).

5) 30. artikuluan, 2, 3 eta 4. paragrafoak ezabatuko dira.

37. artikulua

2988/74 (CEE) Erregelamenduaren aldaketa

2988/74 (CEE) Erregelamenduan, 7 bis artikulua hau txertatuko da:

«7 bis artikulua

Aplikazio-esparrutik baztertutak

Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko ondorengoaren arabera hartutako neurriei: Kontseiluaren 1/2003 (CE) Erregelamendua, 2002ko abenduaren 16koa, Itunaren 81 eta 82. artikuluetan ezarritako lehia-arauak aplikatzen dituen (*).

* AO L, 2003.4.1, or.». ».

38. artikulua

4056/86 (CEE) Erregelamenduaren aldaketa

4056/86 (CEE) Erregelamendua era honetan aldatuko da:

1) 7. artikulua honela aldatuko da:

a) 1. paragrafoa ondorengo testuak ordezkatu du:

«1. *Obligazio baten arau-haustea.*

Interesatuak, 5. artikuluan arabera, 3. artikuluan salbuespenerako ezarritako obligazio bat betetzen ez dutenean, Batzordeak arau-hauste horiek etenaraziko ditu eta, horretarako, erabaki bat har dezake egintza jakin batzuk egin ditzaten debekatu edo esateko, edo kategoriaka salbuesteko onura kentzeko, honen arabera: Kontseiluaren 1/2003 (CE) Erregelamendua, 2002ko abenduaren 16koa, Itunaren 81 eta 82. artikuluetan ezarritako lehia-arauak aplikatzen dituen (*)».

* AO L, 2003.4.1, or.». ».

b) 2. paragrafoa honela aldatuko da:

i) «II. Sekzioan ezarritako baldintzetan» adierazpena «1/2003 (CE) Erregelamenduak ezarritako baldintzetan»ek ordezkatu du.

ii) c) letrako i) tartekiko bigarren paragrafoan, bigarren esaldia testu honek ordezkatu du:

«Aldi berean, erabaki ahal izango du enpresa interesatuak eskainitako konpromisoak onartzen ote dituen, besteak beste, konferentziako kide ez diren konpainiak merkatura sartzeari begira, 1/2003 (CE) Erregelamenduaren 9. artikuluko baldintzen arabera».

2) 8. artikulua honela aldatuko da:

a) 1. paragrafoa ezabatuko da;

b) 2. paragrafoan, «10. artikuluan arabera» adierazpena «1/2003 (CE) Erregelamenduaren arabera»k ordezkatu du;

c) 3. paragrafoa ezabatuko da.

3) 9. artikulua honela aldatuko da:

a) 1. paragrafoan, «15. artikuluan aipatutako Aholku Lantaldea» adierazpena «1/2003 (CE) Erregelamenduaren 14. artikuluan aipatutako Aholku Lantaldea»k ordezkatu du;

b) 2. paragrafoan, «15. artikuluan adierazitako Aholku Lantaldea» adierazpena «1/2003 (CE) Erregelamenduaren 14. artikuluan aipatutako Aholku Lantaldea»k ordezkatu du.

4) 10etik 25erainoko artikulua indargabetu egingo dira, 13. artikuluko 3. paragrafoa izan ezik (artean, Erregelamendu honen aplikazioko dataren aurretik erabaki horiek amaitzeko data arte, 81. artikuluko 3. paragrafoaren arabera hartutako erabakiei aplikatuko zaie).

5) 26. artikuluan, «10. artikuluan adierazitako salaketen, 12. artikuluan aurreikusitako eskaeren, baita 23. artikuluko 1 eta 2. paragrafoetan ezarritako entzunaldien forma, eraketa eta gainontzeko modalitateak» adierazpena ezabatuko da.

39. artikulua

3975/87 (CEE) Erregelamenduaren aldaketa

3975/87 (CEE) Erregelamenduaren 3.etik 19erainoko artikulua indargabetu egingo dira, 6. artikuluko 3. paragrafoa izan ezik (artean, Erregelamendu honen aplikazioko dataren aurretik erabaki horiek amaitzeko data arte, 81. artikuluko 3. paragrafoaren arabera hartutako erabakiei aplikatuko zaie).

40. artikulua

19/65/CEE, 2821/71 (CEE) eta 1534/91 (CEE) Erregelamenduen aldaketa

19/65/CEE Erregelamenduaren 7. artikulua, 2821/71 (CEE) Erregelamenduaren 7. artikulua eta 1534/91 (CEE) Erregelamenduaren 7. artikulua indargabetu egingo dira.

41. artikulua

3976/87 (CEE) Erregelamenduaren aldaketa

3976/87 (CEE) Erregelamendua honela aldatuko da:

1) 6. artikuluko testua testu honek ordezkaturiko du:

«6. artikulua

Erregelamendu-proiektu bat argitaratu aurretik eta erregelamendu bat onartu aurretik, Batzordeak praktika murriztaile eta nagusitza-posizioei buruz kontsultatuko dio Erregelamendu honetan adierazitako Aholku Lantaldeari: Kontseiluaren 1/2003 (CE) Erregelamendua, 2002ko abenduaren 16koa, Itunaren 81 eta 82. artikuluetan ezarritako lehia-arauak aplikatzen dituen (14. artikulua*).

* AO L, 2003.1.4, 1. or.».

2) 7. artikulua indargabetu egingo da.

42. artikulua

479/92 (CEE) Erregelamenduaren aldaketa

479/92 (CEE) Erregelamendua honela aldatuko da:

1) 5. artikulua testu honek ordezkaturiko du:

«5. artikulua

Erregelamendu-proiektua argitaratu aurretik eta erregelamendua onartu aurretik, Batzordeak kontsulta egingo dio Erregelamendu honetan adierazitako Aholku Lantaldeari: Kontseiluaren 1/2003 (CE) Erregelamendua, 2002ko abenduaren 16koa, Itunaren 81 eta 82. artikuluetan ezarritako lehia-arauak aplikatzen dituen (14. artikulua*).

* A O L, 2003.1.4, 1. or.».

2) 6. artikulua indargabetu egingo da.

43. artikulua**17 eta 141. Erregelamenduen indargabetzeak**

1. 17. Erregelamendua indargabetu egingo da, 8. artikuluko 3. paragrafoa izan ezik (artean, Erregelamendu honen aplikazioko dataren aurretik erabaki horiek amaitzeko data arte, 81. artikuluko 3. paragrafoaren arabera hartutako erabakiei aplikatuko zaie).
2. 141. Erregelamendua indargabetu egingo da.
3. Indargabetutako Erregelamenduei egindako erreferentziak Erregelamendu honi dagozkie.

44. artikulua**Erregelamendu hau aplikatzeari buruzko txostena**

Erregelamendu honen aplikazio-datatik bost urteren buruan, Batzordeak haren funtzionamenduari buruzko txostena aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, bereziki 11. artikuluko 6. paragrafoaren eta 17. artikuluaaren aplikazioari buruz.

Txosten horretan oinarrituta, Batzordeak Erregelamendua berrikusteko proposatzea egokia ote den ebaluatuko du

45. artikulua**Indarrean sartzea**

Erregelamendu hau Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratzenetik hogeit egunen buruan sartuko da indarrean.

2004ko maiatzaren 1ean izango da aplikagarria.

Erregelamendu honen elementu guztiak nahitaezkoak dira eta estatu kide guztietan aplikatu beharrekoa da.

Brusela, 2002ko abenduaren 16a.

Kontseiluak egindakoa
Lehendakaria
M. FISCHER BOEL
